



2

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu.

A aukera

PROBA PRAKTIKOA

PROPOSAMENA:

Egin marrazki objektibo bat naturaletik erakutsitako objektuekin, kontuan hartuz bere egitura, objektuen artean dauden proportzioak eta marraztutakoaren eta paperaren arteko erlazioa.

PROZEDURA:

Erabili **lerroa, orbanik gabe**, elementu plastikotzat.

Adierazi argi marrazkiaren eraikuntzarako erabiltzen diren egitura lerroak.

TEKNIKA:

Aukeratu: ikatz-ziria, grafitoa, barra conte beltza, sangina...

EUSKARRIA:

Ingres papera, Basik papera edo antzeko kalitateko papera.

BALIOESPENA: Gehenez ere, 10 puntu

Aldeko faktoretzat hartuko dira ondorengo hauek:

- Marrazkiaren enkoadraketa paperean. Marraztutako formen eta forma horien arteko proportzioak. 3 puntu.
- Argi-iluna, tonu balioa. Tonuen erabilera zuzena azaldutako elementuen artean. 2 puntu.
- Lerroen eta orbanen kalitate plastikoak, 1,5 puntu.
- Irudiz adierazitako espazioaren koherentzia. 1,5 puntu.
- Ikonotasun gradu handia. 2 puntu.

B aukera

PROBA PRAKTIKOA

PROPOSAMENA:

Konposizio berria sortzea, zure inguruan ikusten dituzun objektuak erabiliz.

PROZEDURA:

Tinta lauak argi-iluna mugatzeko

TEKNIKA:

Aukeratu: ikatz-ziria, grafitoa, barra conte beltza, sangina...

EUSKARRIA:

Ingres papera, Basik papera edo antzeko kalitateko papera.

BALIOESPENA: Gehenez ere, 10 puntu

Aldeko faktoretzat hartuko dira ondorengo hauek:

- Marrazkiaren enkoadraketa paperean, eta marraztutako formen eta forma horien arteko proportzioak. 3 puntu.
- Argi-iluna, tonu balioa. Tonuen erabilera zuzena azaldutako elementuen artean. 2 puntu.
- Lerroen eta orbanen balio plastikoak. 1,5 puntu.
- Irudiz adierazitako espazioaren koherentzia. 1,5 puntu
- Konposizio balioak. 2 puntu.